

Funtsezko baliabideak

Gure enpresak baliabide ezberdinak eskuragarri izango ditu, enpresa aurrera eramateko eta arrakastatsua eta errentagarria izateko asmoz. Enpresak baliabide motak hauek izango ditu; baliabide fisikoak (mahiak, koltxonetak...), baliabide intelektuala (marketing estrategia) eta giza baliabideak (gure langileak).

1. Finantza baliabideak

Hasierako inbertsioa egin ahal izateko bakoitzak bere aurrezkietatik 5.000 € jarriko ditu, beraz hasieran 20.000 € izango ditugu. Gero, beste aldetik subentzioak jasoko ditugu erakunde desberdinen eskutik; Gasteizeko udala, Arabako foru aldundia eta Eusko Jaurlaritza. Uste dugu subentzio hauetatik guztira 10.000 € - 20.000 € bitartean jasoko ditugula eta azkenik bankuari 10.000 €-ko prestamo bat eskatuko diogu, bat batean espero ez ditugun arazoei aurre egin ahal izateko.

2. Baliabide fisikoak

Klaseak egiteko espazioak zehaztuz, gure enpresak yoga, meditazio eta mindfulness jardueretarako gune aproposak izango ditu, giro lasaia eta eroso sustatuko dutenak. Lokal mota kontuan hartuta, areto handiak eta naturarekin lotura duten espazio irekiak izango dira, hala nola parke baten ondoan, hau da, espazio zabaletan. Lokalaren azalera 200 metro karratuko izango da. · 3 gela yoga egiteko egongo dira, beste 2 gela psikologia saioak emateko eta azkenik, areto nagusi bat hitzaldiak emateko edo beste jarduera mota batzuk. Komunak jantzi gela barruan egongo dira, hau da, 2 jantzi gela egongo dira, emakumeentzako eta gizonentzako. Barruan komunak kokatuta aurkituko dute.

Gure lokala Salburua auzoan kokatuta egongo da, aproposa irudi zaigu zeren eta, ondo konektatuta dagoelako eta baliabide natural asko daudelako.

Bestalde material ezberdinak erabili beharko ditugu jarduerak aurrera eramateko, adibidez, Esterillak, meditazio-kuxinak, aulki ergonomikoak, eta ariketa-tresna osagarriak

Azkenik, teknologia erabiliko dugu, esate baterako: online saioetarako bideo-konferentzia plataformak, mikrofonoak, eta kamera egokiak. Hortaz, ordenagailuak eta telefonoak eskura izan behar ditugu.

3. Baliabide intelektualak

Lehendabizi **sistema teknologikoak** dauzkagu, non web orrialdea daukagun. Honen bitartez bezeroak eskaintza desberdinen inguruan informazioa eskura dezakete eta gero gustoko dituztenak bertan erosi ahal dituzte, ere egun bereziak honen bitartez iragarriko ditugu.

Jarraitzeko **gizakiaren kapitala** dago. Honetan langileak talde lanean egiteko gaitasuna eta langile bakoitzak bere trebetasunekin enpresari gehitzen diona. Gure ustez proiektu honetarako garrantzia handia dauka beste pertsona batzuekin lan egitea elkarlana sustatzeko. Lehen aipatutakoa oso garrantzitsua da, azkenean besteen ongizatea landu nahi baduzu pertsona batekin ez da nahikoa izango. Gainera beste pertsona baten ikuspuntua onuragarria izan daiteke, ikuspuntu zabalago bat izaten laguntzen duelako.

Gero **kudeaketaren kultura** agertzen da, hau da; enpresaren egunerokotasunean lan gunean ikusten diren baloreak dira. Argi dago errespetua bai ala bai egon behar dela, hau gabe lanaren efizientzia jaisten dela langileen artean gatazkak eragiten duela. Alde egiten dugun hurrengo balioa elkarlana da, azkenean guztiok aurkitzen gara zer egitea ez dakigun egoera batean eta guztio gustazen zaigu laguntza jasotzea egoera hauetan aurkitzen garenean. Beste alde batetik, lanean norbait edukitzea bere funtzioak nola egin behar dituen argi ez duenak lana oztopatzen du eta honek produktibitatea murrizten du. Baloratzen dugun azken gaitasuna proaktibitatea da, zu ez zarelako norbaiten atzetik ibili behar bere lana egin dezan. Gauzak egitea, laguntza ematea...etab pertsonarengandik atera behar da.rk
Amaitzeko **marka** daukagu, enpresaren irudi bezala pertsona bat jarri dugu eta honen buruaren barruan zuhaitz baten hostoak hasten daude. Honen bitartez adierazi nahi dugu guztiok egoera edo sentimendu txar baten aurrean aurkitzen garenean arazo edo egoera hori konpondu dezakegula. Honen barruan ere patentea

dago. Gure ustean gaur egun merkatuan ez dela hain ohikoa ikustea gazteen osasun mentala prebenitzeko bideratutako enpresa askorik, orduan hau negozio errentagarri bat lortzeko indargune eta aukera bezala ikusi dugu.

4. Giza baliabideak:

Langile mota ezberdinak lan egingo dute gure enpresan:

Psikologoak

Gure enpresak laguntza emozionala eskaintzen duenez, psikologo bat edo bi kontratatzea aurreikusten dugu (Lanbide zerrendetan ikusiko genuke, baita Asafes elkartearekin kontaktua dugunez, hortik ahal badugu kontratatuko genuke). Langile hauek laguntza-zerbitzuak eta mantentze-lanak bermatzeko funtsezkoak izango dira, eta Funtsezko Baliabideetan barneratuko ditugu.

Yoga irakasleak

Yogako klaseak eskaintzeko, yogan aditua den pertsona bat kontratatuko genuke (Akari Salud y Bienestar enpresatik). Horrek gure zerbitzuen kalitatea eta eskaintza osatua bermatuko du. Irakasle hau ere Funtsezko Baliabideetan sartuko dugu.

Atezaina: Gutako batek egingo du lan hau. Bere zereginak izango ziren; deiak hartzea, pertsonen arreta eman (sartzen direnei atenditu), gure enpresaren informazioa azaltzea. Enpresan antolaketa bat behar delako eta bezeroen arreta ematea garrantzitsua delako.

Administratzailea: Enpresaren finantziarioa eramaten duen pertsona (gutako batek egingo du lan hau). Garrantzitsua da administratzailea egotea, diru kontuak kontrolatuta eta eguneratuta eramateko.

Garbitzaileak: Taldekide baten aita garbiketa enpresa bat duenez (Limpiezas AL), berarekin harreman zuzena edukiko dugu, garbitzaileak kontratatzeko. Orduan, merkeagoa aterako zen. Zerbitzuen maiztasuna ingurunea garbi eta erakargarria

mantentzeko beharren arabera erabakiko da, baina gutxi gora behera egunero etorri beharko dira (zerbitzua ixten denean). Garrantzitsua da, ingurune garbia izateko eta bisualki erakargarria izateko.

Gizarteratze teknikariak: Taldeko beste bi kidek lan egingo dute lanpostu honetan. Haien zereginak honakoak izango dira: enpresan antolatzen diren hitzaldi (adibidez, osasun mentala, gizarte-integrazioa, etab.), tailer eta jardueretan parte hartzea, baita horiek koordinatzea. Gainera, elkarteak gonbidatuko ditugu hitzaldiak eta jarduerak ematera, osasun mentala, gizarte-integrazioa eta antzeko gaiak lantzeko.

Gizarteratze teknikari gisa, gure ikasketak praktikara eramateko aukera izango dugu, eta arlo horretan dugun ezagutza praktikoa aplikatuko dugu. Honek gure zerbitzuen kalitatea hobetuko du eta bezeroei balio erantsia eskainiko die.

Beste profesional mota batzuk egongo dira gure enpresan:

Bezeroarentzako arreta-taldea: Bezeroekin harreman zuzena izateko eta haien beharretara egokitutako zerbitzua eskaintzeko talde trebatua. Lan hau guztion artean egingo genuke bezeroekin harremana mantentzea.

Komunikazio eta marketing taldeak: Zerbitzuen promozioa eta bezeroen leialtasuna kudeatuko duten profesionalak. Guketako batek arduratuko litzateke, argazkiak ateratzeko ezagutzak eta marketinaren inguruko ezagutzak dituelako, beraz, bera arduratuko litzateke.

Baita kontuan hartuko genuke langileen prestakuntzan eta gure baliabidea hobetzeko bezeroen iritzia, atal hauek izango ditugu kontuan:

Alde batetik langileen Prestakuntza Etengabea: Yoga, meditazio eta buru osasunaren arloan diharduten profesionalak prestakuntza etengabea izatea ezinbestekoa da zerbitzuen kalitatea hobetzeko eta euren jakintza etengabe eguneratzeko. Prestakuntza jarraituak hainbat abantaila ditu, eta horrek zuzenean

eragiten du bezeroen esperientzian eta ongizatean. Ezinbestekoa da profesionalei ikasten jarraitzeko aukera ematea, horrela zerbitzuen kalitatea etengabe hobetzen joango da.

Beste aldetik, bezeroen Gogobetetasuna eta Iritziak Aztertuko ditugu: uste dugulako bezeroen iritzia jasotzea eta aztertzea oso garrantzitsua dela hobekuntzak egiteko eta lortzeko bezeroak beti gustura egon daitezen gure enpresaren barruan. Bezeroen iritzia galdetegi batzuen bitartez jasoko ditugu. Bezeroarentzat ikustea, enpresak erantzunkidetasuna duela oso importantea da haientzat.

